



Iratxe Esnaola

◆ IDAZLEA

## Makarrak

TXILEN BIZI NINTZENEAN eta lagunartean makarra hitza erabiltzen nuenean sarri galdetzen zidaten esanahiaz. Egiaren alde esan dezadan aldiro definizio ezberdin eta total bat ematen nuela, eta honetaz jabeturik, ezin adieraziaren arantzatxoa haziz joan zitzaidala. Badira hitz batzuk definitzen zail zaizkidanak. *Makarra* da horietako bat. *Traste* da beste bat. *Asunto* litzateke hirugarren bat. Aspalditik errotuak ditudan hitzak dira, umetan grabatuak, uko egin nahi ez didanak. Sentipen hau aldean hartuta, behingoan, hitzaren etimologiara jo dut. RAEren arabera *macarra*: (Del cat. *macarró*, y este del fr. *maquereau*). Elhuyarreko frantses-euskara itzultzaileak *maquereau*-ri erantzuten dio: berdela. Frantzian, Parisen bederen, ez omen diote hemen ezagutzen diogun esanahirik (!)

ematen *maquereau*-ri. Bestalde, gaztelania-euskara hiztegian *macarra* bilatuta makarro aurkitzeak bihotza ukitu didan arren (euskaraz *macarra*-ri makarro dei diezaiokegula, alegia!), natorren RAEk ematen dituen hiru sarreretara: 1. adj. *Dicho de una persona: Agresiva, achulada.* 2. adj. *Vulgar, de mal gusto.* 3. m. *rufián (hombre que trafica con mujeres públicas).*

Nire unibertsoko makarrak ez dute horien antzik. Urrun geratzen dira niretik proxenetak, *txuloputak* eta bestelako jendilaje adoregabea. Gure etxean makarra beti izan da aitaren ahotan ibili den hitza kaleari eta gauari lotutako norbait definitzeko. “Kaleko makarrekin” ez elkartzea izan zitekeen aitaren gomen-dioa. Nolanahi dela, ez zen mehatxu seinale. Makarra hitzak berandu baino lehen esanahi sinpatikoa hartu zuen etxe barruan, eta aitaren ahotan edozer zenez makarra (seme-alaben zaintzarako gaindosi erdi-umorezkoak jota), hala,

txisterako arrazoi bihurtu zen, neurri batean. Edoze-lan ere, ezkutuan makarratzat nituenenganako mires-pena lantzen nuen ordurako. Nire nerabazarotik begiratuta makarra bat legea hausteko gai zen, autoritate ilunik ez zuen onartzen eta jendartetik aparteko izaki ilun brillantea iruditzen zitzaidan. Makarraren estetika ez zen orduan eta ez da gaur erraz adostekoa. Badira heavy makarrak, punki makarrak, poligonoetako makarrak, makarra feministak. 90eko hamarkadan, punk etikara lotutako makarra genuen kale bazterrotako iruditegi, baina egun, itxurak ez dit hainbeste inporta. Norbait makarra dela

diot ausardia eta obarioak dituelako hiribide nagusitik joan beharrean bere bide propioa urratzeko. Gutxien espero den unean bere jokabide eta estilo inkonformistaz ahoa bete hartz uzten nauelako. Eta barne zolan ideia libertarioak itsatsi dituelako eta

haiengatik borrokatzen duelako, esanak esan. Ohartzen naiz definizioaren zabalegiak, baina aldi berean, ohartzen naiz hainbat hitz esanahiez zehazten ez jakin arren, eder direla beren zehaztu ezinean, guretzat esanahi gordea baldin badute. Eta niretzat makarrak badu zerbaite gordetik. Gogorapen bat da, umetan handitan izan nahi nuen hari traizio ez egitera bultzatu nahi nauena. Ume hari zituen ametsak ez lapurtzeko oroigarri bat. Laguntzen dit, gainera, miresten ditudanak lokalizatzen, identifikatzen eta iruditegi propio baten bidean ernai mantentzen. Hortik zehar zabil-tzaten makarrak! Nire hiztegian, nire begi zein barrenetan itsasargi zaituztet eta miresgarri. Barkatuko didazue zuen esentzia erabat ezin harrapatua.

N o r k

jakin, harrapatu ezin horretan bertan datza, agian, zuen askatasunaren lehen hazia. ■



Antton Olariaga